



Michelle Alliot Marie Frantziako Barne ministroa eta Nicolas Sarkozy Frantziako presidentea Baionako polizia etxean. BOB EDMÉ

Presoen hainbat eskubide urratzea egotzi dio Europako Kontseiluak Frantziari

Kartzeletako bizi-baldintzak «onartezinak» direla dio Thomas Hammarbergek giza eskubideen komisarioak bere txostenean

Kondena luzatzeak salbuespen neurria behar duela oroitarazi dio Parisiko gobernuari

Xan Harriague

Thomas Hammarberg Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak Frantziako kartzele buruzko txostena kaleratu berri du, eta nabarmendu du hobetzeko asko dagoela, bai politikan, baita bertan eskaintzen diren bizi-baldintzetan ere. Frantziako Gobernuari ohartarazi dio zigorraren gogortzea eta handitzea ez dela presoak gizarteratzeko bide egokiena. Salatu du hainbat eskubide ez daudela bermatuak. Europako arautegiari kasu gehiago egiteko deia luzatu dio.

Hammarberg aurtengo maiatzean egon zen Frantzian. Bertako ministro, administrazio kide eta gizarteraren ordezkarri batzuekin solastatu zen kartzele egoeraz eta espetxe politikaz jabetzeko. Bertatik bertara gaia jorrazteko Fresneseko kartzela bisitatu zuen, eta, sei hilabete geroago, bere iritzia berri eman du.

Kontra ez bada agertu ere, segurtasun zigorra edo kondena luzatzearen alde bikoitasunaz ohartarazi du, oroitaraziz erabil daitekeela soilik pertsona arriskutsuak direlarik gizarterentzat. «Zero arriskuaren logika ez litzateke arau bihurtu behar norberaren eskubideak urratuz». Onartu du baloratzea zaila dela, baina nabarmendu du zalantza presoari egiten diola mesede.

Gisa berean oroitarazi du segurtasun zigorra jar daitekeela bakarrik epailearen ebazpenak horrela aurreikusten bazuen. Haren ustez, Frantziak indar berezia egin behar du arlo horretan. «Segurtasun espetxeratzea azken baliabidea izan behar da, eta ezinbestekoa da askatasuna urratzen ez duten prebentzio neurriak abian jartzea hori saihesteko».

Zaintzapeko askatasuna gutxiegi erabiltzen da, komisarioaren arabera. Kartzeletan dagoen preso gehiegizko kopuruari au-

rre egiteko irtenbide bat litzateke, haren ustez. Baina ikusi ahal izan duenez, Frantziak kartzela gehiago eraikitzeke apustua egin du, eta harentzat huts bat da hori. «Salbuespen neurri bat izan behar luke epe luzera irtenbiderik ez baitakar». Eskumuturreko telematikoen erabilera gehiago eskatu dio. «Zaintzapeko askatasunean bizi direnen kopurua emendatzen ari da, baina oraindik oso eskasa da».

Diskriminaziorik gabe

Presoen sakabanaketari buruz argi ez jokatzeko leporatu dio Hammarbergek Frantziari, eta oroitarazi dio familiarekiko harremanak eusteko erraztasunak izatea eskubidea dela. «Presoa bere herritik ahal bezain hurbil egon behar du senideekiko loturak atxikitzeke eskubidea daukalako, eta abokatuarengandik gertuago egotea komeni delako». Hori arautzen duten neurriak zehazteko eskatu dio Frantziako Gobernuari, haren ustez, norberaren irakurketa ahalbidertzen dutelako oraingoak. «Bizitza pribatuaz gozatzeko aukera izateko legeak argitu behar dira neurri gabeko baldintzak ez inposatzeko eta diskriminazioa saihesteko».

Kartzela barruko politikan eta egoeran ere, hobetu beharreko

gauza asko ikusi ditu Hammarbergek. Salatu du isolamendua arautzen duen dekretua kontratsankorra dela. Bi urtetan mugatzea gehiegizkoa iruditzen zaio, eta, gainera, «oso kezagarria da, batetik, ezin zaiolako helegiterik jarri, eta, bertetik, neurria berri-berri ahal delako kartzela zigorra bezainbeste». Isolatuta dauden presoek kartzelako bertze jardueretan aritzeko aukera izan behar-



Kartzelak eraikitzea salbuespen neurria izan behar luke epe luzera irtenbiderik ez baitakar»

«Ezinbestekoa da askatasuna urratzen ez duten prebentzio neurriak abian jartzea»

THOMAS HAMMARBERG
Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa

ko lukete, komisarioaren ustez. Hari beretik diziplina-zigorrak gehiago mugatzea ezinbestekoa iruditzen zaio.

Dena dela kartzeletako bizi-baldintzek dute gehien kezkatzen. Haren arabera, «onartezinak» dira. Higiene gutxiengoa errespetatzen ez dela salatu du, eta ho-

↓ Txostena

OHARRAK FRANTZIARI

- **Kondena luzatzea.** «Zero arriskuaren logika ez litzateke arau bihurtu behar norberaren eskubideak urratuz».
- **Zaintzapeko askatasuna.** «Zaintzapeko askatasunean direnen kopurua handitzen ari da, baina oraindik oso eskasa da».
- **Isolamendua eta zigor diziplinarioak.** «Diziplina zigorrak mugatu behar dira, eta isolamendua arautzen duen dekretuari dagokionez, oso kezagarria da, batetik ezin zaiolako helegiterik jarri, eta bertetik luzatzen ahal delako kartzela zigorra bezainbeste».
- **Sakabanaketa.** «Preso batek bere herritik ahal bezain hurbil egon behar du, senideekiko loturak atxikitzeke eskubidea daukalako, eta abokatuarengandik gertuago egotea komeni delako».
- **Bizi-baldintzak.** «Bizi-baldintzak onartezinak dira preso gehiegi daudelako, kartzelak zaharrak direlako eta gaizki eginak, eta higiene baldintzarik gabek direlako».

rren erantzule nagusia kartzeletan dauden tokiak baino preso gehiago izatea jo du. Azken urtetan Frantziak zigorrak gogortzeko izan duen joeraren ondorioa da, haren arabera. 2007ko ekainetik 2008kora 3.000 preso gehiago ziren kartzeletan. Gehiegizko presoak 13.000 ziren, eta kartzeletan betetze indizea %125ekoa. Behin-behineko kartzela zigorra betetzeko espetxetan egoera are larriagoa zen, batez bestekoen okupazio indizea %140ra iristen zelako, eta batzuetan %220ra.

Horren ondorio asko aipatzen ditu Hammarbergek txostenean. Europako arauen arabera, ziegatan bakarka egotea eskubidea dela oroitaratzen dio Frantziari, eta salatzen dekretu baten bidez hark ahalmena bihurtu duela. Arau hori hautsiz presoentz inimitatea ez dutela errespetatzen azpimarratu du gehienetan komunak ziega berean direlako.

Kartzeletan hainbeste izaki, zerbitzu minimoak ez direla segurtatzen ere nabarmendu du, tartean duxtak, medikuen kontsultak eta bisiten tartea. Komisarioak kezka agertu du langileen kopurua, hala sozialak, nola begiraleak edo administrariak, kartzelari egokitua delako, eta ez presoentz kopuruari. Horiek egiten duten lana murriztua ikusten du, eta begiraleen eta presoentz arteko ika-mikak maizago gertatzen direla beldur da.

Frantziako Gobernuak heldu den hilabeteetan ekinen dio espetxe politikari arautzen duen legea berritzeari, eta Hammarbergi ezinbestekoa iruditzen zaio puntu horiek guztiak zuzentzea.